

Gaueko Mahaiak antolatuko du Eguberriko gaubeila Baionan karriketetan bizi direnentzat

Afaria eta ikusgarria dohainik eskainiko die behardunei Gabon gaua ospatzeko

Gaueko Mahaia elkarteak afari beroak banatzen ditu gau guziz Baionan, azaroan hasi eta martxora bitartean. Jende guztiek Eguberri gaua ospa dezaten, karriketarik kanpo, ikusgarri bat antolatuko du arrats honetan, afariak gain. Behardunak edo bakartasunean bizi direnak gonbit dira arratseko ikusgarrian.

Lutxi Fourcade / Baiona

KRISI EKONOMIKOAREN ondorioei buru egiteko, esku zabaleko ekintza guztiak ongi etorri dira. Duela zazpi urte, Gaueko Mahaia elkarte sortu zen Baionan, behardunak laguntzeko. Janaria edo jantziak banatzeko ordez, ekimenaren helburua zen afari beroa eskaintzea egun guziz karrikan zeuden jendei. «Aterperik gabe zarenean, egunean otordu bero bat jatea funtsezkoa da. Laguntza baitezpadakoa da karrikan bizi direnentzat», adierazi zuen Christian Muratek, elkartearen sortzaileak.

Elkarteak zailtasun handiak izan ditu hasieran, batez ere toki egokia aurkitzeko. Hain zuzen, zazpi aldiz tokiz aldatu da hirian zehar, behin-behineko aterpea aurkitu arte Mousserolles parkean. Alta bada, ekimena toki batean finkatzea funtsezkoa zen. Izan ere, 25 lagunek baliatzen bazuten ere Gaueko Mahaiaren zerbitzua hasieran, gaur egun ehun bat afari banatzen dira gau guziz.

Gonbita bakartasunean direnei • Afariaren banaketa azaroaren hasieran hasi zen, eta martxoaren bukaera arte iraunen du.



Gaueko Mahaia-ko kide bat etxerik gabekoentzat laguntza prestatzen. BOB EDME

Alabaina, antolatzaileek ekimen berezia bultzatuko dute arrats honetan. Lehen aldikoz, Eguberriko gaubeila proposatuko dute eta, afari beroa eskaintzeaz gain, ikusgarri bat iraganen da Mousserolles plazan. «Eguberri gaua berezia da, eta nahiko gogorra da beharretan direnentzat. Baitezpadakoa iruditu zitzaigun beste indar baten egitea, batzuen kargu pisuak nolazpait arintzeko», adierazi zuen Christian Muratek.

Karrikan bizi diren jendeak biltzeaz gain, antolatzaileek espero dute bakartasunean diren lagunak biltzea. «Aterpe bat izan arren, jende ugari bakarrik egoten da Eguberri gauean eta gonbita egin diegu gurekin une

goxoa pasatzeko», gaineratu zuen.

Elkarteko kideek Baionako dendarien laguntza eskatu dute gaubeila antolatzeko. Janaria emateaz gain, opari txikiak, Eguberriko apaingarriak eta afaltzeko materiala eskaini dituzte. Era berean, hainbat artistak —amatore zein profesional— ikusgarri bat eskainiko dute eta izanen da musika, dantza eta kantu franko. Ohiturari jarraikiz, afaria prestatuko da tokian berean, eta elkarteko kideek banatuko dute. Herriko Etxeak prestatu ditu mahaiak eta aukiak. Alabaina, elkarteak eskertu bazuen ere Udala, gaubeila txoko batean gordetzeko nahikaria kritikatu zuen. «Besta herri erdian antolatu nahi genuen, ahalik eta jende gehien biltzeko. Udalak ez digu baimenik eman eta gure txokoan egon beharko dugu; gizarteko baztertuak berriro baztertuak izanen dira Baionan Eguberriko gauean», deitoratu zuen Muratek. X

26 kilo kokaina harrapatu dituzte udaltzainek Bilbon

■ 800 milioi pezeta inguru balio du aurkitutako drogak merkatuan

Efe / Bilbo

OSO KALITATE oneko 26 kilo kokaina harrapatu zituzten udaltzainek Bilbon joan den astean. Operazio horretan zortzi lagun atxilotu zituzten, eta horietarik lau kartzelara sartu zituzten atzo.

Kokainaren kalitatea neurtu ostean atzo esan zuten, kopuru horrek merkatuan 800 milioi pezeta baino gehiago balio du (32.000.000 libera inguru).

Kokaina horretaz gain, 200 gramo speed, bi milioi pezeta (80.000 libera), bi arma eta hiru auto atzeman zizkieten.

Udaltzaingoak adierazita koaren arabera, droga trafikantzaileek Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo erosten zuten kokaina, eta zuzenean Kolonbiatik ekartzen zieten. Ondoren, manipulatu egiten zuten, eta Bilboko San Adrian auzoan saldu.

Urtebeteko ikerketen ondoren atxilotu zituzten udaltzainek droga trafikantzaileak.

62 urteko E.J.D.C. ardura-tzen zen droga uzten zuten lekutik Bilbora eramateaz. X

Kontrol gabeko zabortegiak garbitu egin dituzte Bizkaian

■ Azken lau urteotan ia % 73 txukundu dituzte

Gorane Agirre / Bilbo

BIZKAIKO kontrolik gabeko zabortegien ia % 73 lehengoratu ditu Bizkaiko Foru Aldundiak 1995-98 urteak bitartean. Hau da, epe horretan guztira aurkitu diren 1.087 zabortegi kontrolatu gabekoetatik 789 garbitu eta lehengoratu ditu Aldundiko Ingurugiro Sailak, eta 1999an gainerako 289ak xahutuko ditu.

Maria Esther Solabarrieta Ingurugiro diputatuak kontrolik gabeko zabortegiek ingurugiroan sortzen duten «eraso larria» nabarmendu zuen. Haren hitzetan, «hurra eta paisaia hondatzeaz gain, kalte larriagoak ere eragin ditzakete lixibiatuak sortzen dituzten hondakin guneak izanez gero».

Solabarrietak emandako datuen arabera, 1995etik 1998ra bitartean garbitutako 789 zabortegietatik gehienak Ibar Ezkerrean, Uribe Kosta-Mungialdean eta Enkarterrietako eskualdean zeuden kokatuak. Le-Artibain, Busturialdean eta Arratia-Nerbiotin zeuden kontrolik gabeko zabortegi gutxien.

Xahutu diren zabortegietan guztira 33.843 tona zabor atera dituzte. Horietatik ia % 83 (28.196 tona) materia geldoak dira, % 11 tamaina handikoak eta gainerakoak zabor poltsetako hiri hondakin solidoak.

Aipaturiko lau urte horietan Bizkaiko 44 udalerrietan txukundu diren zabortegietan guztira 100 milioi pezeta inbertitu dira (25 milioi libera inguru).

Aurtengo datuei dagokienez, Bizkaiko 22 udalerrietan kontrolik gabeko 218 zabortegi xahutu dira eta, orotara, 24 milioi pezeta gastatu dituzte. 1999an, bestalde, 20 milioi pezeta inbertituko dituzte lehengoratzeko geratzen diren 298ak garbitzeko.

Dena dela, azken urte honetan garbitutako zabortegietan hondakin tona gutxiago zeudela azpimarratu zuen Ingurugiro diputatuak. Horren arrazoi nagusia aurtien Bizkaiko sei udalerrietan (Basauri, Zalla, Getxo, La Orconera, Derio eta Markina) zabaldu diren garbiguneak dira. Gune horietan 5.294 tona hondakin bildu dituzte azken hilabeteotan. X



ESKERRIK ASKO GRACIAS

Ondo ibiltzeagatik.

Zuri eta denori gustatzen zaigu bizitzaz toperaino gozatzea, baina ez da ezer kostatzen kontu pixka batekin eta arrizku bila ez ibiltzea. Denon onerako izango da eta.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HERRIZANINGO SAILA

DEPARTAMENTO DE INTERIOR